85. Asoziazionismo tasa	Elkarteren bateko kide diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea, Euskadiko Gazteak Seriea eta Gazteen Argazkiak Seriea
86. Boluntario-lanak betetzea	Boluntario-lanak betetzen dituen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Gazteen Argazkiak Seriea
87. Eredu sozialean aldaketa gertatzeko nahia	Eredu sozialean aldaketa gertatzeko nahia duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, dela erreforma sakonen bitartez, dela aldaketa erradikal baten bitartez.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Jóvenes, participación y cultura política. 2011
88. Gai publikoetan parte hartzeko nahia	Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahia duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea
89. Begiko alderdi politikorik ez dutela adierazten duten gazteak	Begiko alderdi politikorik ez dutela adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Jóvenes, participación y cultura política. 2011
90. Hauteskunde deialdietan parte hartzea	Azkeneko 3 urteetan hauteskunde-deialdiren batean botoa eman duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteen Joeren Seriea / European Commission "European Youth: participation in democratic life" (Flash Eurobarometer 375)
91. Politikarekiko interesa	Politikan Oso edo Nahikoa interes duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Gazteriaren Argazkiak Seriea
92. Sinesgabe edo agnostikoak diren gazteak	Sinesgabe, ateo, agnostiko edo axolagabe direla adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Jóvenes, participación y cultura política. 2011
93. Intolerantzia ideologikoa	Berauen ideia edo balioak ez bezalakoak dituzten pertsonekin harremanetan Oso gogoz kontra edo Nahikoa gogoz kontra egoten diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

ADIERAZLEEN KOADROA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

BALIOAK ETA JARRERAK	Definizioa	Iturria
94. Immigranteak etortzearen gaitzespena	Langile immigranteen etorrera debekatzearen aldeko diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea
95. Pertsona atzerritarrekiko auzuneetako intolerantzia	Pertsona atzerritarrak auzotar izateak molestatuko lituzkeen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea
96. Pertsona atzerritar gehiegi izatearen pertzepzioa	Euskadin pertsona atzerritar gehiegi bizi dela irizten dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea
97. Pertsona homosexualakiko auzuneetako intolerantzia	Pertsona homosexualak auzotar izateak molestatuko lituzkeen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Juventud en España 2012
98. Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen sostengua	Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzei sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Juventud en España 2012
99. Legezko sexu-aldaketarako sostengua	Legezko sexu-aldaketari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea
100. Ikastetxeetan erlijioa irakastearen sostengua	Ikastetxeetan erlijioa irakasteari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Juventud en España 2012
101. Eutanasiaren sostengua	Eutanasiari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Juventud en España 2012
102. Kanabisa legeztatzearen sostengua	Kanabisa legeztatzeari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea
103. Abortu libre eta borondatezkoaren sostengua	Abortu libre eta borondatezkoari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Juventud en España 2012
104. Hutsik dauden etxebizitzak okupatzearen sostengua	Hutsik dauden etxebizitzak okupatzeari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Juventud en España 2012
105. Lana lortzean genero-desberdintasunaren pertzepzioa	Prestakuntza eta esperientzia bera izan arren, lanpostu bat lortzeko mutil batek neska batek baino aukera gehiago duela sumatzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea
106. Etxebizitzako lanetan dagoen genero-arraila	Egunero batz bestean etxeko lanetan 16 eta 29 urte bitarteko emakume eta gizon gazteek aritutako astiaren aldea (minututan).	EUSTAT, Astiaren Aurrekontuen Inkesta

ADIERAZLEEN KOADROA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

BALIOAK ETA JARRERAK	Definizioa	Iturria
107. Kanean gauez ibiltzearen beldurra	Kanean gauez ibiltzearen beldurra bizi duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea
108. Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa globala	Emakumeen aurkako indarkeriaren salaketarik egin duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen zenbatekoa, adin-tarte horretako 1000 emakumeko.	Eusko Jaurlaritza, Segurtasun Saila
109. Kontsumo jasangarriaren indizea	Kontsumo jasangarriari loturiko ondorengo bost jokabide hauetatik gutxienez lau ohiko dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: ontzi edo pakete gutxi erabilitako produktuak erosi, erosketetarako poltsa edo orga propioa eraman, hondarren araberako zaborren banaketa, uraren kontsumoa murriztu eta garraio publikoa edo partekatutako autoa erabili.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteen Joerak Seriea
110. Garraio publikoaren ohiko erabilera	Eguneroko edo ia eguneroko joan-etorrietarako garraio publiko kolektiboa erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea
111. Garraiorako bizikletaren ohiko erabilera	Eguneroko edo ia eguneroko joan-etorrietarako bizikleta erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.	Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EUSKADIko GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Demografia eta biztanleria

Adierazle demografiko guztiak norabide berean doaz; haien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria zahartuz doa pixkanaka. Zaila denez nolabaiteko lan-egonkortasuna lortzea emantzipatu ahal izateko, atzeratu egiten da guraso izateko batez besteko adina, murriztu ugalkortasuna, eta, azken finean, aldatu biztanleriaren piramidearen egitura.

- EUSTATen datuen arabera, 2015eko urtarilaren 1ean, 15 eta 29 urte bitarteko 286.378 pertsona zeuden Euskadin. Datu hori are esanguratsuagoa da 2000ko datuarekin alderatuta, urte hartan 15 eta 29 urteko bitarteko 461.624 pertsona baitzeuden Euskadin. Hortaz,% 37ko beherakada izan da.
- Gazteen indizea (hau da, biztanle guztietatik zenbat diren 15 eta 29 urte bitartekoak) beste minimo historiko batera jaitsi da; hots, % 13,2. Indize hori ia 10 puntu jaitsi da 2000ko % 22,2tik. Estatuan, Asturiasek soilik du Euskadik baino gazteen indize baxuagoa; hain zuzen ere, % 12,3koa. Euskadi 28en EBko estatu bat baliitz, gazteen indizerik baxuena izango luke.
- Gazte atzeritarren kopurua ere murriztu da eta, 2015ean, 36.426 pertsonakoa da. Nahiz eta atzeritarren artean gazteen indizea altuagoa izan, zenbaki absolutuetan izan den beherakadak ez du lagundu euskal gizartearen zahartze-prozesua gelditzen.
- Migrazio-saldoak, immigrazioen eta emigrazioen arteko erlazioan oinarrituta kalkulatu denak, 15 eta 29 urte bitarteko 2559 pertsonako saldo positiboa du 2015ean; hau da, gehiago dira etorritako gazteak, joandakoak baino. Atzeritarren eraginez lortu da saldo positibo hori, haien saldoa 2898 pertsonakoa baita. Nazionalitate espainola dutenen artean, saldoa negatiboa da (-339); hau da, gehiago dira joandako gazteak, etorrikoak edo itzulitakoak baino.
- 64 urtetik gorakoen gaineko gazteen ratioak txikitzen jarraitzen du, bizi-itxaropena handitzen den hein berean. 2015ean, 62,5 gaztekoa da indizea 64 urtetik gorako 100 nagusiko. Beheranzko joera antzematen da 2000tik, argi eta garbi, urte hartan 129,2koa baitzen; hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsona gehiago zegoen, 64 urtetik gorakoak baino.
- Lehenbizikoz ama izateko batez besteko adina gero eta altuagoa da, eta 32 urtetik hurbil dago jada (31,8). Hain zuzen ere adierazle honetan antzematen da zeinen lagungarria den atzeritarren eragina, haien artean lehenengo seme-alaba izateko batez besteko adina 27,7 urtekoa baita; hau da, Euskadin jaiotako emakumeena (32,4) baino ia bost puntu txikiagoa.

Hezkuntza

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-adierazleek oso emaitza positiboak izaten jarraitzen dute, eta lehentasunezko tokian jarri dute autonomia-erkidegoa, bai Espainian, bai Europan.

EUSKADIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

- 2014an, eskola uzten dutenen tasa (alegia, 18 eta 24 urte bitarteko biztanleetatik zenbaterik amaitu duten gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baina, inkestari erantzun aurreko lau asteetan, ez duten bestelako ikasketa edo prestakuntzarik jaso) % 7,5koa zen, hiru puntu baino gehiago 28en EBko batez bestekotik behera, eta herrialde batzuetakoaren azpitik, besteak beste, Alemania (% 9,5), Frantzia (% 8,5) eta Erresuma Batua (% 11,8). Garaia baino lehenago eskola uzten dutenen Euskadiko tasa Espainiakoarekin alderatzen badugu, aldea izugarria da (% 7,7 eta % 21,9, hurrenez hurren).
- Bigarren Hezkuntzan graduatu direnen tasak gora egin du apur bat, eta dagoeneko % 85,9koa da hezkuntza-maila hori amaitu duten 20 eta 24 urte bitartekoen kopurua. Indize honetan, EAren eta Espainiaren arteko aldeak oso handia izaten jarraitzen du (% 85,9 eta % 65,8, hurrenez hurren), eta 28en EBko batez bestekoaren (% 82,3) gainetik ere badago.
- Goi-mailako hezkuntzako titulazioa lortzen dutenen kopuruak (hau da, 30 eta 34 urte bitarteko zenbat gaztek duten hirugarren mailako titulazioa, unibertsitatekoa edo goi-mailako prestakuntza-zikloetakoak) goraka jarraitzen du, eta % 47,5koa da. Alde handia dago emakumeen (% 55,7) eta gizonen (% 40,2) artean, eta handituz joan da pixkanaka azken urteotan. Adierazle honetan ere Espainiaren (% 42,3) eta 28en EBko batez bestekoaren (% 37,9) gainetik dago EAE.
- Euskararen jakite-mailak gora egin du, % 61,3tik (2009) % 64,4ra (2014). Hazkunderik handiena Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetan izan da.
- Ingelesaren jakite-mailak ere (hau da, zenbat gaztek dioten ingelesez ondo egiten dutela) gorantz jarraitzen du eta, 2014an, % 54,4koa da 15 eta 29 urte bitartekoen artean.
- Euskararen eta ingelesaren jakite-mailak gora egitearen ondorioz, hirueletasun-tasa (hau da, Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek egiten duten ondo euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) % 26tik (2009) % 30,9ra (2014) pasatu da. Tasa hori handiagoa da Gipuzkoan (% 36,3), euskararen jakite-maila handiagoa delako. Handiagoa da, baita ere, 15 eta 19 urte bitartekoen artean (% 46,1), 25 eta 29 urte bitartekoen artean baino (% 20,8).

Enplegua eta egoera ekonomikoa

Enplegu-adierazleek irudikatzen duten egoeran itxuraz hobetuz doaz alderdi batzuk, besteak beste, langabezia-tasa, baina hori enplegua askotan prekarizatuta dagoelako gertatzen da (aldi baterako lan-kontratudunen tasa altuak eta lanaldi partzialeko lanpostu ugari), eta horrek eragin nabarmena du, ez bakarrik soldatetan, baita bizi-proiektuak Euskadin garatzeari, emantzipatzeko asmoei eta, azken batean, etorkizuneko itzaropenei dagokienez gazteek duten ikuspegiaren ere.

- 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen jarduera-tasa % 51,4koa da; hau da, Euskadiko gazteen erdiak baino gehiago lanean ari dira, edo lan egiteko prest daude. 2015ean, behera egin du apur bat aurreko urteko tasarekiko, eta 2001ean erregistratutakoa baino 10 puntu baxuagoa da.

EUSKADIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

- 2015ean, enplegu-tasa (hau da, zenbat pertsonak duten lana) % 37,1ekoa da Euskadiko gazteen artean.
- 2014an, gora egin zuen langabezia-tasak (% 29,5), baina behera egin du 2015ean (% 27,9). Gazteen langabezia-tasa altuagoa da gizonen artean eta, bereziki, Arabako gazteen artean. Horretaz gain, 28en EBko batezbestekoa (% 16,1) baino altuagoa da, baina Espainiakoa (% 36,7) baino baxuagoa.

2. Adierazleen koadroa

- Iraupen luzeko langabeziaren tasa (hau da, zenbat gaztek daramatzaten hamabi hilabete baino gehiago jarraian lanik gabe) % 10,7koa izan da 2015ean. Iraupen luzeko langabeziak gehiago eragiten die gizonari, emakumeei baino. Adierazle honek bilakaera positiboa izan du, behera egin baitu nabarmen 2013ko eta 2014ko balioekin alderatuta, baina ez da iritsi 2013 baino lehenagoko balioetara.

3. Euskadiko panoramika

- Okerrera egin dute 16 eta 29 urte bitarteko gazteen lan-baldintzek. Aldi baterako lan-kontratua duten gazteen tasak zazpi puntu egin du gora 2012tik 2014ra (hots, % 50,7tik % 57ra). Aldi baterako lan-kontratu gehiago dago gizonen artean, emakumeen artean baino, eta 16 eta 24 urte bitartekoen artean, 25 eta 29 urte bitartekoen artean baino.

4. Arabako panoramika

- Lanaldi partzialeko enpleguaren tasak ere gora egin du, eta, 2015ean, Euskadin lanean ari diren hiru gaztetik ia batek du era horretako lana (% 30,7). Dirudienaz, lanaldi partziala ohikoagoa da Bizkaian (% 33,1), Araban (% 30,3) eta Gipuzkoan (% 27,1) baino. Alde handia dago emakume gazteen (% 37,5) eta gizon gazteen (% 24) artean.

5. Bizkaiko panoramika

- Aldi baterako lan-kontratudunen eta lanaldi partzialeko lanaren tasa altuak izatea gutxi balitz bezala, gero eta gehiagok uste dute handitu egin dela hurrengo urtean lanpostua galtzeko edo lan-baldintzak prekarizatzeko arriskua; hain zuzen ere, % 47,2tik (2014) % 51,7ra (2015). Iritzi horretakoak diren gehienek ustez, lan-baldintzak prekarizatuko dira, baina ez dute galduko lanpostua.

6. Gipuzkoako panoramika

- Euskadin, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen batez besteko soldata garbia, hilean, 996,39 eurokoa da. Lanaldi osoan diharduten gazteek, batez beste, 1195,29 euro jasotzen dituzte, eta lanaldi partzian dihardutenek, berriz, 604,78 euro. Kontuan hartzen badugu lehen esan duguna (alegia, Euskadiko hiru gaztetik batek lanaldi partzian diharduela), ondoriozta dezakegu, lanean egon arren, nekez has daitezkeela emantzipatzen halako egoera ekonomikoan egonda.

7. Datu base interaktiboa

- Luzaroan behera egin ondoren, laneko ezbehar-tasa igotzen hasi da, jarduera ekonomikoa suspertzearen ondorioz, eta, 2015ean, 36,4 lan-istripu izan dira 16 eta 34 urte bitarteko 1000 landuneko.
- Gazte landunen erdiak baino apur bat gehiagok (% 52,7) diote beren lana oso edo nahiko lotuta dagoela duten prestakuntzarekin; hau da, prestakuntzari lotutako lana dute.
- Nahiz eta gazteen lan-merkatuaren baldintzekin erlazionatutako adierazleek segurtasun-falta handia erakutsi, badirudi etorkizunerako itxaropenak hobetuz doazela nolabait. Hain zuzen ere, handitu egin da ikasketak amaitu eta prestakuntza akademikoari lotutako lana aurkitzeko itxaropena. Izan ere, 2013an, ikasleen % 46k zuten itxaropena; 2014an, % 56k; eta 2015ean, % 64,9k.

EUSKADIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

- Txikitu egin da lan egin ahal izateko nahitaez atzerrira emigratzeko probabilitatea. 2014an, % 14,2k uste zuten beharbada atzerrira joan beharko zutela; eta 2015ean, berriz, % 13,7k. Nahitaez atzerrira emigratzeko probabilitatea zabalduago dago gizonezkoen artean (% 15,5), emakumezkoen artean baino (% 11,9).

2. Adierazleen koadroa

- 35 urtefik beherako bat buru duten etxeetan bizi direnen pobrezia-arriskua % 17koa zen Euskadin 2014an, eta hiru puntu murriztu da 2012ko datuekin alderatuta (% 20,2). Lurralde historikoaren arabera, egoera oso desberdina da. Araban, portzentaje hori % 21,8koa da; Bizkaian, % 20koa; eta Gipuzkoan, % 10,3koa.

3. Euskadiko panoramika

Emantzipazioa eta etxebizitza

Lehen esan dugun moduan, lan-aukera egonkorrik ez dagoenez eta etxebizitzak garesti daudenez, Euskadin emantzipazio-tasa oso txikia da, emantzipatzeko batez besteko adina Europako zenbait herrialdetakoa baino 10 urte handiagoa da, eta, gainera, emantzipazioa dagoenean, portzentaje handi bat emantzipatzen da, eta ahalegin ekonomiko handiegia eginda.

4. Arabako panoramika

- 2015ean, 18 eta 34 urte bitarteko emantzipazio-tasa % 40,9koa da Euskadin; hau da, adin-tarte horretako hamar gaztetik lau emantzipatuta daude. Portzentaje hori 2007az geroztiko txikiena da, eta 2014an erregistratutakoa baino hiru portzentaje-puntu txikiagoa. Gizonen eta emakumeen emantzipazio-tasen arteko aldea handitu egin da 2014 eta 2015 bitartean, eta ia 13 portzentaje-puntukoa da (% 34,8koa mutilen artean, eta % 47koa emakumeen artean).

5. Bizkaiko panoramika

- 2015ean, Euskadiko gazteen emantzipazio-tasa berriz ere Espainiakoaren (% 41,6) atzetik jarri da, nahiz eta azken urteotan ia paretsu egon diren.

6. Gipuzkoako panoramika

- Azken datuaren arabera (2011), emantzipatzeko batez besteko adina 29,9 urtekoa da Euskadin. Balio hori Espainiako (28,5) baino apur bat handiagoa da, eta 28en EBko beste estatu kide batzuetakoa baino askoz ere handiagoa, bereziki Europako iparraldeko herrialdeekin alderatuta, besteak beste, Suedia (20,3), Danimarka (21,0) eta Finlandia (21,9). Emantzipatzeko batez besteko adinari erreparatuta, badirudi irudizko lerro batek zeharkatzen duela Europaren erdialdea, hegoaldeko herrialdeek antzeko balioak baitituzte, esaterako, Portugalek (28,6), Greziak (28,8) eta Italiak (29,7).

7. Datu base interaktiboa

- Gazteak emantzipatu ahal izateko eragozpen handiena etxebizitza eskuratzea da (jabetzan edo alokairuan), eta, horrekin batera, lan-egonkortasuna eta -prekarietatea egotea. Horrela, 2015ean, etxebizitza jabetzan eskuratzea diru-sarreraren % 53,4 kostatzen zaie bakarrik emantzipatu nahi duten 18 eta 34 urte bitartekoei. Kostu hori handiagoa da Gipuzkoan (% 58,0), Bizkaian (% 52,2) eta Araban (% 45,4) baino.
- Etxebizitza alokairuan eskuratzearen kostua, aldiz, jabetzan eskuratzearena baino are handiagoa da, 18 eta 34 urte bitarteko Euskadiko gazteek beren diru-sarreraren % 63,8 bideratu behar luketelako alokairua ordaintzera.

EUSKADIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

- 2015ean, emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko Euskadiko gazteen % 55,3 alokairuan bizi ziren. Azken bi hamarkadetako bilakaera aztertuz gero, aldaketa nabaria dago emantzipatzeko moduan; 1991n, 18 eta 34 urte bitarteko Euskadiko pertsonen % 9,2 soilik bizi ziren alokairuan, baina portzentaje hori handituz joan zen (% 19ra 2006an, eta % 31ra 2011n). Nahiz eta gizonen eta emakumeen emantzipatzeko tasak oso desberdinak izan, ez dago alderik emantzipatzeko formula gisa alokairua aukeratzeari dagokionez.
- Etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunek (hau da, emantzipatutako zenbat pertsonak dituzten zailtasunak etxebizitzaren gastuak ordaintzeko, tartean alokairua, hipoteka-kuota, argi edo uraren ordainagiriak, etab.) emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitartekoen % 24,4ri eragiten diete 2015ean. Portzentaje hori apur bat txikitu da 2013tik; urte hartan, etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunak zituztenen portzentajea % 26,5koa zen.
- Horren antzera, 2015ean, emantzipatutako gazteen % 21,3k diru-sarreraren % 40 bideratzen dute etxebizitza-gastuak ordaintzera, eta horrek ahalegin ekonomiko handiegia egitea dakarkie. Portzentaje hori 2011koa baino txikiagoa da, garai hartan % 25,9koa baitzen.
- Emantzipatu ondoren sortutako arazo ekonomikoak direla medio gurasoen etxera itzuli behar izan duten 18 eta 34 urte bitarteko gazteen portzentajea % 2,8koa izan da Euskadin 2015ean.
- Emantzipazioa zapuzteko aukerak (hau da, zenbatek ezin izango duten emantzipatu, nahi izanda ere, eta zenbatek itzuli beharko duten, nahitaez, gurasoen etxera) gora egin du apur bat 2015ean, eta % 48,9koa da 15 eta 29 urte bitartekoen artean.
- Etorkizunean emantzipatu nahi izanez gero, are eta jende gehiagok aukeratzen du alokairua emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean. 2013an, emantzipatuta ez zeudenen % 41,8k aukeratzen zuten alokairua; 2015ean, aldiz, % 56,1era iritsi da portzentaje hori.

Osasuna

Euskadiko gazteen osasun-adierazleek, oro har, oso balio positiboak izaten jarraitzen dute, bai balio objektiboek dagokienez (jarduera fisikoa, haurduntza adolezenteak edo infekzio berriak, tartean GIB), bai norberaren osasunaren pertzepzioari dagokionez.

- EAEko gazteek beren osasunaz duten pertzepzioak egonkor jarraitzen du, baina joera positiboa hartu du azken urteotan. 2002an, Euskadiko gazteen % 5,8k uste zuten ez zutela osasun ona (erdipurdikoa, txarra edo oso txarra), baina 2013an portzentaje hori % 4,6ra jaitsi da. Euskadiko gazteak 28en EBkoekin alderatuz gero, ikus dezakegu Euskadiko gazteek dutela osasun txarreko portzentajerik txikienetako bat. Greziak (% 3,1), Errumaniak (% 2,7) eta Bulgariak (% 4,0) soilik dituzte portzentaje txikiagoak. Beste herrialde batzuek, tartean Danimarkak (% 11,5) eta Finlandiak (% 9,1), balio benetan handiak dituzte.

EUSKADIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

- Nahiz eta gazteek hauteman osasun ona dutela, hamarretik bik (% 20,7) osasun-arazo kronikoak dituzte.
- Osasun mentalari dagokionez, Euskadiko gazteen % 13,7k diote noizbait izan dutela antsietatea edo depresioa; portzentaje hori handiagoa da emakumeen artean (% 18,7).

2. Adierazleen koadroa

- Euskadiko gazte gehienek (% 75,3) egiten dute astero jarduera fisikoren bat, bizia edo neurritzkoa. Joera hori handitu egin da, % 67,6tik (2007) % 75,3ra (2013).

3. Euskadiko panoramika

- Obesitate-tasa kalkulatzeko, formula hau erabiltzen da: pisua (kg-tan) / altuera (m-tan) ber bi. Obesitate-tasak gora egin du pixkanaka; 2002an, % 3,4koa zen, eta 2013an, berriz, % 5,4koa. Obesitateak neurri handiagoan eragiten die gizonezkoei (% 6,0), eta, klase sozialean gora egin ahala, murriztu egiten da (% 7,4 behe-mailako klaseko edo klase ertain-baxuko pertsonen artean, eta % 3,5 goi-mailako klaseko edo klase ertiaineko pertsonen artean).

4. Arabako panoramika

- Euskadiko gazteen % 23,5ek diote tabakoa erre ohi dutela; portzentaje hori handiagoa da gizonen artean (% 26,6), emakumeen artean baino (% 20,4). Alkoholaren gehiegizko kontsumoari edo kontsumo arriskutsuari dagokionez, gizonen tasak ia bikoiztu egiten du emakumeena (% 32,6 eta % 16,6, hurrenez hurren); gauza bera gertatzen da kanabisaren kontsumoarekin, azken hilabeteen kanabisa kontsumitu dutela esan duten EAEko gazteen portzentajea % 7,1ekoa baita gizonen artean, eta % 1,6koa, emakumeen artean.

5. Bizkaiko panoramika

- Drogazaletasunaren aurkako tratamenduei hasiera eman dieten gazteen kopuruak balio konstanteei eutsi die azken urteotan. 2014an, 15 eta 29 urte bitarteko 1.000 gaztetik bi jarri ziren drogazaletasuna sendatzeko tratamenduan Euskadin. Alkoholaren kontsumoari eta kanabisarenari dagozkien adierazleetan bezala, honetan ere ikusten da neskak baino mutil gehiago jartzen direla tratamenduan drogazaletasunagatik (0,6 eta 3,4, hurrenez hurren, sexu eta adin-talde bereko 1.000 gazteko).

6. Gipuzkoako panoramika

- GIB infekzio berriek (adin-talde bereko 10.000 gazteko tasaren arabera kalkulaturakoek) balio txikiak izaten jarraitzen dute. 2015ean, tasa hori 1,2koa da 10.000ko, eta mutilena apur bat altuagoa, neskena baino (1,9 eta 0,5, hurrenez hurren).

7. Datu base interaktiboa

- Haurdunaldia borondatez eten duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopurua (adin-tarte bereko 1.000 emakumetik) jaitsi egin da, eta 11,8koa da 2014an. 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen artean, tasa 8,5ekoa da 1.000 emakumeko; 20 eta 24 urte bitartekoen artean, 13,4koa; eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, berriz, 12,8koa.

- Haurduntza adolezenteen tasak 15 eta 17 urte bitarteko emakumeen artean urtebetean jaio den haur kopurua eta borondatez eten den haurdunaldi kopurua biltzen ditu, adin-tarte bereko 1.000 emakumeko. 2014an, tasa hori 7,6koa zen; Arabakoa altuagoa zen (9,9), Bizkaikoa (8,3) eta Gipuzkoakoa (5,6) baino.

- 15 eta 29 urte bitartekoen artean trafiko-istripuen ondoriozko hilkortasun-tasa, adin-tarte bereko 100.000 pertsonako, 4,7koa izatetik (2012) 2,1ekoa (2013) eta 2,2koa (2014) izatera pasatu da. Aipatzekoa da azken bi urteotan emakumeen tasa 0 dela; hortaz, trafiko-istripuen ondorioz Euskadin hil diren gazte guztiak gizonak ziren.

- 2012tik, suizidioa da heriotza-kausa nagusia, trafiko-istripuen aurretik. 2014an, tasa hori, 100.000 pertsonako, 5,8koa da; hau da, trafiko-istripuen ondoriozko hilkortasun-tasa baino bi aldiz handiagoa.

EUSKADIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Aisia, kultura eta kirola

Euskadiko gazteen aisialdiko jarduerak era guztietakoak dira (artistikoak, kirolak...), eta gazte asko erakartzen dituzte.

- 2012an, Euskadiko gazteen % 41,6 kontzerturen batean egonak ziren aurreko hiru hilabeteetan; % 42,9k aisialdiko jarduera artistikoren bat egin ohi zuten (esaterako, argazkilaritza edo pintura); eta % 53,7k erregularitasunez irakurtzen zuten (libururen bat hilean), nahitaez irakurri beharrekoaz gain.
- Emakumeek gizonak baino joera handiagoa dute jarduera artistikoetan parte hartzeko edo irakurtzeko; aldiz, gizonak emakumeak baino maizago joaten dira kontzertuetara.
- 2012an, Euskadiko gazteen % 40,2k kirola egiten zuten gutxienez astean hirutan; hala ere, aldea nabarmena zen gizonen (% 50,2) eta emakumeen (% 29,6) artean. Horretaz gain, urteek aurrera egin ahala, ez da hain ohikoa kirola egitea; horrela, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 49,3k egiten dute, 20 eta 24 urte bitartekoen % 39,2k, eta 25 eta 29 urte bitartekoen % 35ek.
- 2012an, 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen % 28,6k astean 15 ordu baino gehiago ematen zituzten Interneten. Portzentaje hori oso bizkor hazi da: 2000n, % 1,4koa zen; 2004an, % 7,9koa; eta 2008an, % 14koa.
- 2015ean, lokala duten gazteen portzentajea 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko biztanleen % 20,2koa da. Mutil gehiago dago lokaletan, neskak baino.
- Euskadiko gazteek lagunekin erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, % 42k euskara erabiltzen dute, gaztelania baino gehiago edo hura bezainbeste. Hala ere, alde handia dago lurralde historikoen artean (% 26 Araban, % 30,7 Bizkaian, eta % 59,3 Gipuzkoan).

Balioak eta jarrerak

Beste edozein gizartetan bezala, Euskadiko gazteek iraultzaileak diren ezaugarriak eta hain iraultzaileak ez diren beste batzuk konbinatzen dituzte. Batetik, Euskadiko gazteak tolerantzia-maila handia lortzen ari dira homosexualen eskubideekiko edo abortuarekiko, eta baztertu egiten dituzte heriotza-zigorra, emakumeen aurkako indarkeria, etab. Hala ere, badute zer hobetu gai horietako batzuetan.

Euskadiko gazteak pozik daude beren bizimoduarekin, eta itxaropentsu begiratzen diote etorkizunari, nahiz eta garai zailak izan globalizazioaren, krisi ekonomikoaren eta lan-merkatuko paradigma-aldaketaren eraginez.

EUSKADIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

- Lehen aldiz, 15 eta 29 urte bitartekoen erdiak baino gehiagok (% 53,6) dute beren burua fedegabetzat edo agnostikotzat.
- Gazteen % 44,6k uste dute etorkin gehiegi daudela Euskadin, eta % 9,8k gaitzetsi egiten dute etorkin gehiago etortzea.
- Gazte gehienei ondo iruditzen zaie sexu bereko pertsonak ezkontzea (% 87), sexu-aldaketa egitea (% 80,6), askatasunez eta borondatez abortatzea (% 78,9), eutanasia egitea (% 73) eta kanabisa legezkatzea (% 60,5). Aldiz, gutxi batzuk (% 37,9) eskoletan irakaskuntza erlijiosoa ezartzearen alde daude.
- 15 eta 29 urte bitarteko hiru pertsonatik bat (% 34,1) elkarteren bateko kide da.
- Politikan duten interesa areagotu egin da 2012 eta 2014 artean, eta % 22,5etik % 29ra pasatu da politikan interes handia edo dezente dutenen portzentajea.
- Hiru gaztetik bik (% 64,9) aldaketa soziala nahi lukete.
- Borondatezko lana egiten duten gazteen portzentajea % 6,5ekoa da; zertxobait altuagoa da emakumeen artean (% 7,8).
- Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak (hau da, 15 eta 29 urte bitarteko zenbat emakumek salatu duten beren aurkako indarkeria, adin-tarte bereko 1.000 emakumeko) balio konstanteei eutsi die azken urteotan. 2015ean, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen aurkako indarkeria-tasa 7,3koa da.
- 15 eta 29 urte bitarteko nesken % 32,2k diote beldur diotela gauez kalean ibiltzeari, eta mutilen artean, berriz, portzentaje hori % 7koa da. Gauez kalean ibiltzeari beldur diotenen portzentajeak behera egiten du adinean gora egin ahala.
- Gazteen % 37,2k garraio publikoan egiten dituzte joan-etorriak egunero (Bizkaian gainerako lurralde historikoetan baino gehiago), eta beste % 9,6k, berriz, bizikletaz (ohikoagoa da hori Araban eta Gipuzkoan, Bizkaian baino).
- Adin hori zutenean gurasoak baino egoera hobean daudela dioten gazteen portzentajea neurtzen duen adierazlean joera-aldaketa dago 2015ean, aurreko urteetan (2008, 2011 eta 2013) erregistratutakoari dagokionez. 2008an, % 76,8k esan zuten gurasoak baino egoera hobean zeudela; 2011n, % 62,8k; eta 2013an, berriz, % 51,1ek (portzentajerik txikiena). Hala ere, badirudi 2015ean gora egin duela, hots, % 58,5era.
- Etorkizunarekiko konfiantza-indizea adierazle sintetiko bat da, eta adierazten du 15 eta 29 urte bitarteko gazteek nola ikusten dituzten bost urte barru beren egoera pertsonala, gazteen egoera eta Euskadiren egoera. Adierazle horren emaitza 0 eta 100 bitartean dago. 2013an, % 63,8koa izan zen, eta 2015ean, berriz, % 73,9koa da.

ARABAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Demografia eta biztanleria

- EUSTATen datuen arabera, 2015eko urtarrilaren 1ean, 15 eta 29 urte bitarteko 43.158 pertsona zeuden Araban. Datu hori are esanguratsuagoa da 2000ko datuarekin alderatuta, urte hartan 15 eta 29 urte bitarteko 65.064 pertsona baitzeuden.
- Gazteen indizea (hau da, biztanle guztietatik zenbat diren 15 eta 29 urte bitartekoak) beste minimo historiko batera jaitsi da; hots, % 13,4. Indize hori ia 10 puntu jaitsi da 2000ko % 23tik. Araba Euskadiko batez bestekoaren gainetik (13,2) dago.
- Gazte atzeritarren kopurua ere murriztu da eta 2015ean 6610 pertsonakoa da, 2010ean 8882 zelarrik.
- 2015eko Arabako gazteen migrazio-saldoa positiboa da, 303 pertsonakoa hain zuzen ere.
- 64 urtetik gorakoen gaineko gazteen ratioak txikitzen jarraitzen du, bizi-itxaropena handitzen den hein berean. 2015ean, Araban, 68,9 gaztekoa da indizea 64 urtetik gorako 100 nagusiko. Beheranzko joera antzematen da 2000tik, argi eta garbi, urte hartan 149,8koa baitzen; hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsona gehiago zegoen, 64 urtetik gorakoak baino. Joera hau hiru lurralde historikoetan gertatzen da.
- Lehenbizikoz ama izateko batez besteko adina gero eta altuagoa da, eta 32 urtetik hurbil dago Araban (31,8). Balore hau 2000ean 30,9koa zen eta balio hauetan mantendu da azken 15 urteetan.

Hezkuntza

- 2014an, Araban eskola uzten dutenen tasa (alegia, 18 eta 24 urte bitarteko biztanleetatik zenbaterik amaitu duten gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baina, inkestari erantzun aurreko lau asteetan, ez duten bestelako ikasketa edo prestakuntzarik jaso) % 5,3koa zen. Euskadiko batez bestekotik (% 7,5) behera agertzen da Araba tasa honetan.
- Bigarren Hezkuntza amaitu dutenen tasak gora egin du apur bat Euskadin, eta hala egin du ere Araban. 2013an % 84,7k behintzat Bigarren Hezkuntza amaituta bazuten, 2014an gora egin du % 88rarte.
- Goi-mailako hezkuntzako titulazioa lortzen dutenen kopuruak (hau da, 30 eta 34 urte bitarteko zenbat gaztek duten hirugarren mailako titulazioa, unibertsitatekoa edo goi-mailako prestakuntza-zikloetakoa) beheraka egin du Araban azken bi urteetan 2013ko % 44,9tik 2014ko % 41,7ra pasatu da eta.
- Euskararen jakite-mailak gora egin du Araban, % 41,2tik (2004) % 53,4ra (2014). Hala ere, Euskadiko batez bestekotik 10 puntu behera dago.
- Ingelesaren jakite-mailari dagokionez, ostera, Araba da Euskadiko lurralde historikoen artean portzentaje handiena lortzen duena (% 56,4); Euskadiko batez bestekoa % 54,4 da.
- Euskararen eta ingelesaren jakite-mailak gora egitearen ondorioz, hiruetautasun-tasa (hau da, Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek egiten duten ondo euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) % 14,2tik (2009) % 29,6ra (2014) pasatu da.

ARABAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Enplegua eta egoera ekonomikoa

- 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen jarduera-tasa % 51,4koa da; hau da, Euskadiko gazteen erdiak baino gehiago lanean ari dira, edo lan egiteko prest daude. Araba batez bestekoaren gainetik dago, % 54,3ko jarduera-tasa izanik.
- Arabako enplegu-tasa (hau da, zenbat pertsonak duten lana) ere Euskadiren batez bestekotik gora dabil (% 38,4 eta % 37,1). Hala ere, 2008ko datuak aztertzen baditugu, % 50etik gora zenean (% 55,2 hain zuzen ere), joera negatiboa dela antzeman egingo dugu.
- Arabako gazteriaren langabezia-tasa 2015ean % 29,2koa da, Euskadiko batez bestekotik gora (% 27,9). Gipuzkoa da langabezia-tasa txikiena duen lurralde historikoa (% 25,7).
- Hala ere, iraupen luzeko langabezia-tasa (hau da, zenbat gaztek daramatzaten hamabi hilabete baino gehiago jarraian lanik gabe) Araban Euskadin baino zertxobait baxuagoa da (% 9,3 eta % 10,7 hurrenez hurren).
- Araban lan egiten duten hiru lagunetik ia batek lanaldi partzialean egiten du 2015ean (% 30,3). Euskadin gertatzen denaren parekoa (% 30,7).
- Arabako 15 eta 29 urte bitarteko % 47,1ek uste du hurrengo urtean lanpostua galtzeko edo lan-baldintzak prekarizatzeko arriskua dagoela.
- Araban, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen batez besteko soldata garbia, hilean, 1105,6 eurokoa da. Hemen Araba beste bi lurralde historikoen aurretik agertzen da, Bizkaiko gazteen batez besteko soldata 956,6 eurokoa baita; Gipuzkoakoena, aldiz, 1014,1 eurokoa.
- 16 eta 34 urteko 1000 landueneko ezbehar tasa Araban 46,1ekoa da. Euskadiko batez bestekoa 36,4koa izanik, argi dago Arabaren balorea negatiboa dela.
- Arabako gazte landunen % 56,2k diote beren lana oso edo nahiko lotuta dagoela duten prestakuntzarekin.
- Nahiz eta gazteen lan-merkatuaren baldintzekin erlazionatutako adierazleak datu negatiboak erakutsi, ikasketak amaitu eta prestakuntza akademikoari lotutako lana aurkitzeko itxaropena handia da, % 59,5k hala uste du eta.
- Araban, nahitaez atzerrira emigratzeko probabilitatea % 14,2koa da.

ARABAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Emantzipazioa eta etxebizitza

- 2015ean, Arabako 18 eta 34 urte bitartekoen emantzipazio-tasa % 41koa da.
- Arabako gazteen emantzipazio-tasa 2015ean Euskadikoaren gainetik geratu da (% 40,9) baina Espainiakoaren atzetik (% 41,6).
- Azken datuaren arabera (2011), emantzipatzeko batez besteko adina Araban 29,4 urtekoa da. Balio hau Espainiakoa (28,5) baino zertxobait altuagoa da eta 28en EBko beste estatu kide batzuetakoa baino askoz handiagoa ere, besteak beste, Suedia (20,3), Danimarka (21,0) eta Finlandia (21,9).
- Gazteak emantzipatu ahal izateko eragozpen handiena etxebizitza eskuratzea da (jabetzan edo alokairuan), eta, horrekin batera, lan-egonkortasuna eta prekarietatea egotea. Horrela, 2015ean, Araban, etxebizitza jabetzan eskuratzea diru-sarreraren % 45,4 kostatzen zaie bakarrik emantzipatu nahi duten 18 eta 34 urte bitartekoei. Kostu hori handiagoa da Gipuzkoan (% 58,0) eta Bizkaian (% 52,2).
- Etxebizitza alokairuan eskuratzearen kostua, Araban eta beste bi lurralde historikoetan, jabetzan eskuratzearena baino are handiagoa da. Horrela, 18 eta 34 urte bitarteko Arabako gazteek beren diru-sarreraren % 54,1 bideratu beharko lukete alokairua ordaintzera.
- 2015ean, Araban emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 48 alokairuan bizi ziren. Araba da modu honetan emantzipatuta dauden kopuru baxuena lortzen duen lurralde historikoa: Euskadiko kopurua % 55,3koa da eta Gipuzkoakoa % 57,3koa. Azken bi hamarkadetako bilakaera aztertuz gero, aldaketa nabaria dago emantzipatzeko moduan; 1991n, 18 eta 34 urte bitarteko Arabako pertsonen % 6,3 soilik bizi ziren alokairuan, baina portzentaje hori 2006an % 21,9ra pasa zen eta 2011n % 33,4ra.
- Etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunek (hau da, emantzipatutako zenbat pertsonak dituzten zailtasunak etxebizitzaren gastuak ordaintzeko, tartean alokairua, hipoteka-kuota, argi edo uraren ordainagiriak, etab.) emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitartekoen % 21,0ri eragiten diete Araban 2015ean. Portzentaje hori apur bat txikitu da 2013tik; urte hartan, etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunak zituztenen portzentajea % 30,4koa zen.
- Araban emantzipatutako gazteen % 17k diru-sarreraren % 40 bideratzen dute etxebizitza-gastuak ordaintzera, eta horrek ahalegin ekonomiko handiegia egitea dakarkie.
- Emantzipatu ondoren sortutako arazo ekonomikoak direla medio gurasoen etxera itzuli behar izan duten Arabako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen portzentajea % 2,1ekoa izan zen 2015ean.
- Emantzipazioa zapuzteko aukerak (hau da, zenbatek ezin izango duten emantzipatu, nahi izanda ere, eta zenbatek itzuli beharko duten, nahitaez, gurasoen etxera), behera egin du Araban 2013 eta 2015 artean, % 45,9tik % 43,4ra.
- Araban emantzipatu gabe dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean alokairuaren aukerak gora egiten du emantzipatu nahi izanez gero. 2011n % 25,7 ziren baina 2015ean % 56,5era heltzen da. Joera hau hiru lurralde historikoetan gertatzen da.

ARABAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Osasuna

- EAEko gazteek beren osasunaz duten pertzepzioak egonkor jarraitzen du, baina joera positiboa hartu du azken urteotan. 2002an, Euskadiko gazteen % 5,8k uste zuen ez zutela osasun ona (erdipurdikoa, txarra edo oso txarra), baina 2013an portzentaje hori % 4,6ra jaitsi da. Araba da, hiru lurralde historikoen artean, beraien osasuna txartzat hartzen duten gazteen kopuru baxuena duena (% 3,1).
- Era berean, osasun-arazo kronikoen portzentajeak itzelezko beherakada eman du Arabako gazteen artean, 2002ko % 22,1tik 2013ko % 10ra pasatu baita. Balio hau are esanguratsuagoa da Euskadikoarekin alderatuz (% 20,7).
- Osasun mentalari dagokionez, Arabako gazteen % 10,9k diote noizbait izan dutela antsietate edo depresioa, Euskadiko batez bestekotik behera (% 13,7).
- Arabako gazte gehienek (% 76,1) egiten dute astero jarduera fisikoren bat, bizia edo neurrizkoa.
- Obesitate-tasa kalkulatzeko, formula hau erabiltzen da: pisua (kg-tan) / altuera (m-tan) ber bi. Arabako gazteei dagokienez, tasa hau ia bikoiztu egin da 2007ko % 3,2 eta 2013ko % 6,3 artean. Euskadiko balio orokorra % 5,4 da.
- GIB infekzio berriek (adin-talde bereko 10 000 gazteko tasaren arabera kalkulaturakoek) balio txikiak izaten jarraitzen dute. 2015ean, tasa hori Arabako gazteen artean 1,4koa da.
- Haurdunaldia borondatez eten duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopurua (adin-tarte bereko 1000 emakumetik) 10,8koa izan da 2014an Araban. Euskadin, oster, 11,8koa.
- Haurduntza adolezenteen tasak 15 eta 17 urte bitarteko emakumeen artean urtebetean jaiotzen den haur kopurua eta borondatez eten den haurdunaldi kopurua biltzen ditu, adin-tarte bereko 1000 emakumeko. 2013an tasa hori 9,3koa zen Euskadin. Araban, 9,2koa.
- Arabako 15 eta 29 urte bitarteko artean trafiko-istripuen ondoriozko hilkortasun-tasa, adin-tarte bereko 100 000 pertsonako, 2,3koa da. 2005ean tasa horren balioa 26,3koa zela kontutan hartzen badugu, balioa txikitat jo dezakegu.

ARABAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Aisia, kultura eta kirola

- 2012an Arabako gazteen % 40,5 kontzerturen batean egonak ziren aurreko hiru hilabeteetan.
- % 45,9k aisialdiko jarduera artistikoren bat egin ohi zuten (esaterako, argazkilaritza edo pintura).
- % 59,5k erregulartasunez irakurtzen zuten (libururen bat hilean), nahitaez irakurri beharrekoaz gain.
- 2012an, Arabako gazteen % 41,4k kirola egiten zuten gutxienez astean hirutan.
- Arabako gazteen % 25,7k astean 15 ordu baino gehiago ematen zituzten Interneten.
- Araban lonja daukaten gazteen portzentajeak gora egin du 2013 eta 2015 artean, % 16,4tik % 17,7ra pasatuz. Praktika hau kopuru gutxiago baten ematen da Araban Euskadirekin alderatuz (% 20,2).
- Arabako gazteek lagunekin erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, % 26,1ek euskara erabiltzen dute. Euskararen erabilera Araban Euskadiko batez bestekotik asko aldentzen da (% 42), batez ere Gipuzkoak lortzen duen portzentajea arrazoi (% 59,3).

Balioak eta jarrerak

- Arabako gazteen % 45,6k dute beren burua fedegabetzat edo agnostikotzat. Gipuzkoako gazteekiko aldea ia 20 puntukoa da (% 64).
- Arabako gazte gehienei ondo iruditzen zaie sexu bereko pertsonak ezkontzea (% 82,9), sexu-aldaketa egitea (% 77,8), askatasunez eta borondatez abortatzea (% 78,9), eutanasia egitea (% 71,6) eta kanabisa legezkotzea (% 51,8).
- Arabako 15 eta 29 urte bitarteko % 46,9 elkarteren bateko kide da. Portzentaje hau Euskadiko batez bestekoa baino askoz handiagoa da (% 34,1).
- Arabako gazteek politikan duten interesa 2014an % 23koa da, hau da, politikan interes handia edo dezente dutenen portzentajea. Euskadiko batez bestekoa zertxobait altuagoa da (% 29).
- Arabako gazteen % 58,3k aldaketa soziala nahi dute. Portzentaje hau hiru lurralde historikoen artean baxuena da.
- Arabako gazteen % 6,8k borondatezko lana egiten dute.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak (hau da, 15 eta 29 urte bitarteko zenbat emakumek salatu duten beren aurkako indarkeria, adin-tarte bereko 1000 emakumeko) balio konstanteei eutsi die azken urteotan. 2015ean Araban, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen aurkako indarkeria 8,5ekoa da.

ARABAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

- Arabako gazteen % 21,8k garraio publikoan egiten dituzte joan-etorriak egunero, Euskadiko portzentajetik nahikotxo aldentuta (% 37,2). Baina bizikletaren erabilerari dagokionez, ostera, Araban % 17,2ko portzentajea lortzen da, Euskadiko batez bestekoa % 9,6 izanik.
- Gogobetetasun pertsonalaren indizea (hau da, nola baloratzen duten gazteek beren egoera) 7,2koa izan da 2015ean Euskadin. Araban, aldiz, 7,1ekoa.
- Adin hori zutenean gurasoak baino egoera hobean daudela dioten gazteen portzentajea neurtzen duen adierazleak beherako joera du 2008tik Araban, % 82,3 zenean. 2011n % 63,3ra pasatu zen, 2013an % 55,2ra eta 2015ean % 52,3ra.
- Etorkizunarekiko konfiantza-indizea adierazle sintetiko bat da, eta adierazten du 15 eta 29 urte bitarteko gazteek nola ikusten dituzten bost urte barru beren egoera pertsonala, gazteen egoera eta Euskadiren egoera. Adierazle horren emaitza 0 eta 100 bitartean dago. 2013an, % 63,8koa izan zen, eta 2015ean, berriz, % 73,9koa. Arabako portzentajea 2015ean % 74koa da.



BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Demografia eta biztanleria

- EUSTATen datuen arabera, 2015eko urtarrilaren 1ean, 15 eta 29 urte bitarteko 147.686 gazte zeuden Bizkaian. Datu hori esanguratsuagoa da 2000ko datuekin alderatuta, urte hartan 15 eta 29 urte bitarteko 248.585 pertsona baitzeuden.
- Gazteen indizea, hau da, biztanle guztietatik zenbat diren 15 eta 29 urte bitartekoak, beste minimo historiko batera jaitsi da Bizkaian; hots, % 12,9. Indize hau ia 10 puntu jaitsi da 2000ko % 22,1etik. Europa osoan nekez topako dugu gazteen indize baxuagoa daukan lurralderik.
- Gazteen atzeritarren kopurua ere murriztu da Bizkaian eta 2015ean 17.820 pertsonakoa da.
- 2015eko Bizkaiko gazteen migrazio-saldoa positiboa da, 1067 lagunekoa hain zuzen ere.
- 64 urtetik gorakoen gaineko gazteen ratioak txikitzen jarraitzen du, bizi-itzaropena handitzen den hein berean. 2015ean, Bizkaian, 59,8 gaztekoa da indizea 64 urtetik gorako 100 nagusiko. Beheranzko joera antzematen da 2000tik, argi eta garbi, urte hartan 149,8koa baitzen; hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsona gehiago zegoen, 64 urtetik gorakoak baino. Bizkaia da hiru lurralde historikoen artean, biztanleria zahartuena duena.
- Lehenbizikoz ama izateko batez besteko adina gero eta altuagoa da, eta 32 urtetik hurbil dago Bizkaiko nesken artean (31,9).

Hezkuntza

- 2014an, Bizkaian eskola uzten dutenen tasa (alegia, 18 eta 24 urte bitarteko biztanleetatik zenbatek amaitu duten gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baina, inkestari erantzun aurreko lau asteetan, ez duten bestelako ikasketa edo prestakuntzarik jaso) % 8,4koa zen. Euskadiko batez bestekotik (% 7,5) nahiko goragoa agertzen da Bizkaia.
- Bigarren Hezkuntza amaitu dutenen tasak pixka bat gora egin du Bizkaian dagoeneko. 2014an % 85ak behintzat Bigarren Hezkuntza amaitua zuten Bizkaian.
- Goi-mailako hezkuntzako titulazioa lortzen dutenen kopuruak (hau da, 30 eta 34 urte bitarteko zenbat gaztek duten hirugarren mailako titulazioa, unibertsitatekoa edo goi-mailako prestakuntza-zikloetakoa) % 47,5ean dago Bizkaian 2014. Joan den aurretik gorakada itzela izan du gainera, orduan % 39,7 baitzen.
- Euskararen jakite-mailak gora egin du Bizkaian, % 57,7tik (2009) % 60,4ra (2014). Hala ere, Euskadiko batez bestekotik behera dago.
- Ingelesaren jakite-mailari dagokionez, , hau da, ingelesez ondo berba egiten dutenen portzentajea, goraka doa Euskadin eta baita Bizkaian ere. 2014an % 53,2ra heldu da 15 eta 29 urte bitartekoen artean. Portzentaje honek gora egin du 200ko % 44tik.
- Euskararen eta ingelesaren jakite-mailak gora egitearen ondorioz, hiruletasun-tasa (hau da, 15 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek egiten duten ondo euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) % 19,9tik (2009) % 27,7ra (2014) pasatu da Bizkaian.

BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Enplegua eta egoera ekonomikoa

- 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen jarduera-tasa % 51,4koa da; hau da, Euskadiko gazteen erdiak baino gehiago lanean ari dira, edo lan egiteko prest daude. Bizkaia batez bestekoaren azpitik dago, % 50,2ko jarduera-tasa izanik.
- Bizkaiko enplegu-tasa (hau da, zenbat pertsonak duten lana) Euskadiren batez bestekotik behera dabil (% 35,7 eta % 37,1).
- Euskadiko gazteriaren langabezia-tasa 2014an % 29,5 era igo zen baina handik behera egin du 2015ean % 27,9 arte. Bizkaian enplegu-tasa % 28,9koa da.
- Iraupen luzeko langabezia-tasa (hau da, zenbat gaztek daramatzaten hamabi hilabete baino gehiago jarraian lanik gabe) Bizkaian % 11,9koa da.
- Lanaldi partzialean ari dira Euskadin lanean ari diren gaztetik ia herena (% 30,7) eta egoera hau Bizkaian are eta gehiago gertatzen da (% 33,1).
- Bizkaiko 15 eta 29 urte bitarteko % 52,3k uste du hurrengo urtean lanpostua galtzeko edo lan-baldintzak prekarizatzeko arriskua dagoela.
- Bizkaian, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen batez besteko soldata garbia, hilean, 956,64 eurokoa da. Hiru lurralde historikoen artean, Bizkaiak ditu soldatarik baxuenak gazteei dagokienez, Arabako gazteek baino 110 euro inguru gutxiago, hain zuzen ere.
- 16 eta 34 urteko 1000 landueneko ezbehar tasa Bizkaian 36,4koa da.
- Bizkaiko gazte landunen % 49,9k diote beren lana oso edo nahiko lotuta dagoela duten prestakuntzarekin.
- Ikasketak amaitu eta prestakuntza akademikoari lotutako lana aurkitzeko itzaropena handia da Bizkaian, % 63,3k hala uste du eta. Araban % 59,5k hala uste du eta Gipuzkoan % 70,4k.
- Bizkaian, nahitaez atzerrira emigratzeko probabilitatea % 13,7koa da.

BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Emantzipazioa eta etxebizitza

- 2015ean, Bizkaiko 18 eta 34 urte bitartekoen emantzipazio-tasa % 40,9koa da. Bizkaiko gazteen emantzipazio-tasa 2015ean Euskadikoaren parekoa da.
- Azken datuaren arabera (2011), emantzipatzeko batez besteko adina Bizkaian 30,8 urtekoa da. Balio hau Espainiakoa (28,5) baino zertxobait altuagoa da eta 28en EBko beste estatu kide batzuetakoa baino askoz handiagoa ere, besteak beste, Suedia (20,3), Danimarka (21,0) eta Finlandia (21,9).
- Gazteak emantzipatu ahal izateko eragozpen handiena etxebizitza eskuratzea da (jabetzan edo alokairuan), eta, horrekin batera, lan-ezgonkortasuna eta prekarietatea egotea. Horrela, 2015ean, Bizkaian, etxebizitza jabetzan eskuratzea diru-sarreraren % 52,2 kostatzen zaie bakarrik emantzipatu nahi duten 18 eta 34 urte bitartekoei.
- Etxebizitza alokairuan eskuratzearen kostua Bizkaian jabetzan eskuratzearena baino are handiagoa da. Horrela, 18 eta 34 urte bitarteko Arabako gazteek beren diru-sarreraren % 64a bideratu beharko lukete alokairua ordaintzera.
- 2015ean, Bizkaian emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 55,8 alokairuan bizi ziren. Azken bi hamarkadetako bilakaera aztertuz gero, aldaketa nabaria dago emantzipatzeko moduan; 1991n, 18 eta 34 urte bitarteko Bizkaiko pertsonen % 9,1 soilik bizi baitziren alokairuan. Bizkaia da alokairuan bizi diren gazte gehien dituen lurraldea.
- Etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunek (hau da, emantzipatutako zenbat pertsonak dituzten zailtasunak etxebizitzaren gastuak ordaintzeko, tartean alokairua, hipoteka-kuota, argi edo uraren ordainagiriak, etab.) emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitartekoen % 26,2ri eragiten diete Bizkaian 2015ean. Portzentaje hori apur bat txikituta da 2013tik; urte hartan, etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunak zituztenen portzentajea % 25,6koa zen.
- Bizkaian emantzipatutako gazteen % 26,7k diru-sarreraren % 40 bideratzen dute etxebizitza-gastuak ordaintzera, eta horrek ahalegin ekonomiko handiegia egitea dakarkie. Portzentaje hau Arabakoaren baino 10 puntu handiagoa da.
- Emantzipatu ondoren sortutako arazo ekonomikoak direla medio gurasoen etxera itzuli behar izan duten Bizkaiko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen portzentajea % 3,9koa izan zen 2015ean.
- Emantzipazioa zapuzteko aukerak (hau da, zenbatek ezin izango duten emantzipatu, nahi izanda ere, eta zenbatek itzuli beharko duten, nahitaez, gurasoen etxera), gora egin du Bizkaian 2014 eta 2015 artean, % 52,1etik % 53,9ra.
- Bizkaian emantzipatu gabe dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean alokairuaren aukerak gora egiten du emantzipatu nahi izanez gero. 2013an % 39,1 ziren baina 2015ean % 53,5era heltzen da.

BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Osasuna

- EAEko gazteek beren osasunaz duten pertzepzioak egonkor jarraitzen du, baina joera positiboa hartu du azken urteotan. 2002an, Euskadiko gazteen % 5,8k uste zuen ez zutela osasun ona (erdipurdikoa, txarra edo oso txarra), baina 2013an portzentaje hori % 4,6ra jaitsi da. Bizkaian beraien osasuna txartzat hartzen duten gazteen kopurua % 4,4koa da.
- Osasun-arazo kronikoen portzentajeak gora egin du Bizkaiko gazteen artean, 2007ko % 18,6tik 2013ko % 23,9ra pasatu baita.
- Osasun mentalari dagokionez, Bizkaiko gazteen % 13,3k diote noizbait izan dutela antsietate edo depresioa, Euskadiko batez bestekotik zertxobait behera (% 13,7).
- Bizkaiko gazte gehienek (% 74,5) egiten dute astero jarduera fisikoren bat, bizia edo neurrizkoa.
- Obesitate-tasa kalkulatzeko, formula hau erabiltzen da: pisua (kg-tan) / altuera (m-tan) ber bi. Bizkaiko gazteei dagokienez, tasa hau ia bikoiztu egin da 2007ko % 3,5 eta 2013ko % 6,5 artean. Hiru lurraldeen baliorik handiena dauka Bizkaiak.
- GIB infekzio berriek (adin-talde bereko 10 000 gazteko tasaren arabera kalkulaturakoek) balio txikiak izaten jarraitzen dute. 2015ean, tasa hori Bizkaiko gazteen artean 1,2koa da.
- Haurdunaldia borondatez eten duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopurua (adin-tarte bereko 1000 emakumetik) 12,9koa izan da 2014an Bizkaian. Euskadin, ostera, 11,8koa.
- Haurduntza adoleszenteen tasak 15 eta 17 urte bitarteko emakumeen artean urtebetean jaio den haur kopurua eta borondatez eten den haurdunaldi kopurua biltzen ditu, adin-tarte bereko 1000 emakumeko. 2013an tasa hori 9,3koa zen Euskadin. Bizkaian, handiagoa, 11,4koa.
- Bizkaiko 15 eta 29 urte bitarteko artean trafiko-istripuen ondoriozko hilkortasun-tasa, adin-tarte bereko 100 000 pertsonako, 2,1ekoa da.

Aisia, kultura eta kirola

- 2012an Bizkaiko gazteen % 40,7 kontzerturen batean egonak ziren aurreko hiru hilabeteetan.
- % 37,9k aisialdiko jarduera artistikoren bat egin ohi zuten (esaterako, argazkilaritza edo pintura).
- % 50,4k erregularitasunez irakurtzen zuten (libururen bat hilean), nahitaez irakurri beharrekoaz gain. Hiru aspektu hauetan Bizkaia azken lekuan agertzen da.
- 2012an, Bizkaiko gazteen % 35,5ek kirola egiten zuten gutxienez astean hirutan.
- Bizkaiko gazteen % 31,8k astean 15 ordu baino gehiago ematen zituzten Interneten.
- Bizkaian lonja daukaten gazteen portzentajeak 2015ean % 25,6koa da.

BIZKAIKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

- Bizkaiko gazteek lagunekin erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, % 30,7k euskara erabiltzen dute. Euskadiko batez bestekotik asko aldentzen da (% 42), batez ere Gipuzkoak lortzen duen portzentajea arrazoi (% 59,3).

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Balioak eta jarrerak

- Bizkaiko gazteen % 49,5ek dute beren burua fedegabetzat edo agnostikotzat. Gipuzkoako gazteekiko aldea ia 20 puntukoa da (% 64) baina Arabakoan baliotik zertxobait gorago (% 45,6).
- Bizkaiko gazte gehienei ondo iruditzen zaie sexu bereko pertsonak ezkontzea (% 82,9), sexu-aldaketa egitea (% 79,7), askatasunez eta borondatez abortatzea (% 78,6), eutanasia egitea (% 71,7) eta kanabisa legezkatzea (% 59).
- Bizkaiko 15 eta 29 urte bitarteko % 25,9 elkarteren bateko kide da. Portzentaje hau Gipuzkoakoa baino askoz txikiagoa da (% 41,7).
- Bizkaiko gazteek politikan duten interesak gora egin du 2012 eta 2014 artean. Politikan interes handia edo dezente dutenen portzentajea % 19,2tik % 28ra pasa da tarte horretan.
- Bizkaiko gazteen % 66,3k aldaketa soziala nahi duela adierazten du.
- Bizkaiko gazteen % 5,2k borondatezko lana egiten dute.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak (hau da, 15 eta 29 urte bitarteko zenbat emakumek salatu duten beren aurkako indarkeria, adin-tarte bereko 1000 emakumeko) balio konstanteei eutsi die azken urteotan. 2015ean Bizkaian, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen aurkako indarkeria 7,2koa da.
- Bizkaiko gazteen % 44,4 garraio publikoan egiten dituzte joan-etorriak egunero, Euskadiko portzentajetik handiena.
- Bizkiletan egindako eguneroko joan-etorrietan, aldiz, Bizkaia da portzentajerik xumeena lortzen duena (% 2,1).
- Gogobetetasun pertsonalaren indizea (hau da, nola baloratzen duten gazteek beren egoera) 7,2koa izan da 2015ean Bizkaian.
- Adin hori zutenean gurasoak baino egoera hobean daudela dioten gazteen portzentajea neurtzen duen adierazleak beherako joera du 2008tik Bizkaian beste bi lurraldeetan gertatu den bezala, % 74,2 zenean. 2011n % 61era pasatu zen, 2013an % 45,6ra eta 2015ean % 55,7ra.
- Etorkizunarekiko konfiantza-indizea adierazle sintetiko bat da, eta adierazten du 15 eta 29 urte bitarteko gazteek nola ikusten dituzten bost urte barru beren egoera pertsonala, gazteen egoera eta Euskadiren egoera. Adierazle horren emaitza 0 eta 100 bitartean dago. Bizkaian 2014ko % 72,5etik 2015eko % 74,4era.

GIPUZKOAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Demografia eta biztanleria

- EUSTATen datuen arabera, 2015eko urtarrilaren 1ean, 15 eta 29 urte bitarteko 95.534 gazte zeuden Gipuzkoan. Datu hori esanguratsuagoa da 2000ko datuekin alderatuta, urte hartan 15 eta 29 urte bitarteko 147.975 pertsona baitzeuden.
- Gazteen indizea, hau da, biztanle guztietatik zenbat diren 15 eta 29 urte bitartekoak, beste minimo historiko batera jaitsi da Gipuzkoan; hots, % 13,5. Indize hau ia 9 puntu jaitsi da 2000ko % 22tik.
- Gazteen atzeritarren kopurua ere murriztu da Gipuzkoan eta 2015ean 11.996 pertsonakoa da.
- 2015eko Gipuzkoako gazteen migrazio-saldoa positiboa da, 1189 lagunekoa hain zuzen ere.
- 64 urtetik gorakoen gaineko gazteen ratioak txikitzen jarraitzen du, bizi-itzaropena handitzen den hein berean. 2015ean, Gipuzkoan, 64,1 gaztekoa da indizea 64 urtetik gorako 100 nagusiko. Beheranzko joera antzematen da 2000tik, argi eta garbi, urte hartan 129koa baitzen; hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsona gehiago zegoen, 64 urtetik gorakoak baino.
- Lehenbizikoz ama izateko batez besteko adina gero eta altuagoa da, eta 32 urtetik hurbil dago Gipuzkoako nesken artean (31,6).

Hezkuntza

- 2014an, Gipuzkoan eskola uzten dutenen tasa (alegia, 18 eta 24 urte bitarteko biztanleetatik zenbatak amaitu duten gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baino, inkestari erantzun aurreko lau asteetan, ez duten bestelako ikasketa edo prestakuntzarik jaso) % 7,1ekoa zen. Euskadiko batez bestekotik (% 7,5) beherago agertzen da Gipuzkoa.
- Bigarren Hezkuntza amaitu dutenen tasak pixka bat gora egin du Gipuzkoan dagoeneko. 2014an % 86,2ak behintzat Bigarren Hezkuntza amaitua zuten Gipuzkoan.
- Goi-mailako hezkuntzako titulazioa lortzen dutenen kopuruak (hau da, 30 eta 34 urte bitarteko zenbat gaztek duten hirugarren mailako titulazioa, unibertsitatekoa edo goi-mailako prestakuntza-zikloetakoa) % 50,8an dago Gipuzkoan 2014. Joan den aurretik gorakada nabarmena izan du gainera, orduan % 46,3 baitzen.
- Euskararen jakite-mailak behera egin du Gipuzkoan, % 76,3tik (2009) % 74,8ra (2014). Hala ere, Euskadiko batez bestekotik gora dago eta beste bi lurraldeak oso atzean uzten ditu (Euskadikotik 10 puntu gora eta Arabakotik 20 puntu gora).
- Ingelesaren jakite-mailari dagokionez, , hau da, ingelesez ondo berba egiten dutenen portzentajea, goraka doa Euskadin eta baita Gipuzkoan ere. 2014an % 55,4ra heldu da 15 eta 29 urte bitartekoen artean. Portzentaje honek gora egin du 2000ko % 45,7tik.
- Euskararen eta ingelesaren jakite-mailak gora egitearen ondorioz, hiruletasun-tasa (hau da, 15 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek egiten duten ondo euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) % 18,5etik (2009) % 30,9ra (2014) pasatu da Gipuzkoan.

GIPUZKOAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Enplegua eta egoera ekonomikoa

- 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen jarduera-tasa % 51,4koa da; hau da, Euskadiko gazteen erdiak baino gehiago lanean ari dira, edo lan egiteko prest daude. Gipuzkoa batez bestekoaren antzera dago, % 51,9ko jarduera-tasa izanik.
- Gipuzkoako enplegu-tasa (hau da, zenbat pertsonak duten lana) Euskadiren batez bestekotik gora dabil (% 38,6 eta % 37,1).
- Euskadiko gazteriaren langabezia-tasa 2014an % 29,5 era igo zen baina handik behera egin du 2015ean % 27,9 arte. Gipuzkoan langabezia-tasa % 25,7koa da.
- Iraupen luzeko langabezia-tasa (hau da, zenbat gaztek daramatzaten hamabi hilabete baino gehiago jarraian lanik gabe) Gipuzkoan % 9,6koa da.
- Lanaldi partzialean ari dira Euskadin lanean ari diren gaztetik ia herena (% 30,7) eta egoera hau Gipuzkoan antzeko dabil (% 27,1).
- Gipuzkoako 15 eta 29 urte bitarteko % 52,5ek uste du hurrengo urtean lanpostua galtzeko edo lan-baldintzak prekarizatzeko arriskua dagoela.
- Gipuzkoan, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen batez besteko soldata garbia, hilean, 1014,13 eurokoa da, Euskadiko batez bestekotik gora (996,39 euro).
- 16 eta 34 urteko 1000 landueneko ezbehar tasa Gipuzkoan 32,2koa da. Arabako ezbehar tasarekin alderatuz (46,1koa 1000 langileko), ikus dezakegu Gipuzkoakoa dezente hobea dela.
- Gipuzkoako gazte landunen % 55,6k diote beren lana oso edo nahiko lotuta dagoela duten prestakuntzarekin.
- Ikasketak amaitu eta prestakuntza akademikoari lotutako lana aurkitzeko itzaropena handia da Gipuzkoan, % 63,3k hala uste du eta. Araban % 59,5k hala uste du eta Gipuzkoan % 70,4k.
- Gipuzkoan, nahitaez atzerrira emigratzeko probabilitatea % 17,6koa da, Arabako gazteen (% 14,2) eta Bizkaiko gazteen (% 13,7) balioetatik gora.

GIPUZKOAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Emantzipazioa eta etxebizitza

- 2015ean, Gipuzkoako 18 eta 34 urte bitartekoen emantzipazio-tasa % 40,8koa da. Gipuzkoako gazteen emantzipazio-tasa 2015ean Euskadikoaren parekoa da (% 40,9).
- Azken datuaren arabera (2011), emantzipatzeko batez besteko adina Gipuzkoan 28,9 urtekoa da. Balio hau Espainiakoa (28,5) baino zertxobait altuagoa da eta 28en EBko beste estatu kide batzuetakoa baino askoz handiagoa ere, besteak beste, Suedia (20,3), Danimarka (21,0) eta Finlandia (21,9).
- Gazteak emantzipatu ahal izateko eragozpen handiena etxebizitza eskuratzea da (jabetzan edo alokairuan), eta, horrekin batera, lan-egonkortasuna eta prekarietatea egotea. Horrela, 2015ean, Gipuzkoan, etxebizitza jabetzan eskuratzea diru-sarreraren % 58 kostatzen zaie bakarrik emantzipatu nahi duten 18 eta 34 urte bitartekoei.
- Etxebizitza alokairuan eskuratzearen kostua Gipuzkoan jabetzan eskuratzearena baino are handiagoa da. Horrela, 18 eta 34 urte bitarteko Arabako gazteek beren diru-sarreraren % 67,5a bideratu beharko lukete alokairua ordaintzera. Gipuzkoa da bai erosteko eta bai alokatzeko kosterik handienak dituen lurraldea.
- 2015ean, Gipuzkoan emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 57,3 alokairuan bizi ziren. Azken bi hamarkadetako bilakaera aztertuz gero, aldaketa nabaria dago emantzipatzeko moduan; 1991n, 18 eta 34 urte bitarteko Gipuzkoako pertsonen % 10,6 soilik bizi baitziren alokairuan. Balio hori 2006an % 18,5era heldu zen eta 2011n % 27,8ra.
- Etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunek (hau da, emantzipatutako zenbat pertsonak dituzten zailtasunak etxebizitzaren gastuak ordaintzeko, tartean alokairua, hipoteka-kuota, argi edo uraren ordainagiriak, etab.) emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitartekoen % 23,4ri eragiten diete Gipuzkoan 2015ean. Portzentaje hori apur bat txikitu da 2013tik; urte hartan, etxebizitzaren gastuak ordaintzeko zailtasunak zituztenen portzentajea % 26koa zen.
- Gipuzkoan emantzipatutako gazteen % 16,8k diru-sarreraren % 40 bideratzen dute etxebizitza-gastuak ordaintzera, eta horrek ahalegin ekonomiko handiegia egitea dakarkie.
- Emantzipatu ondoren sortutako arazo ekonomikoak direla medio gurasoen etxera itzuli behar izan duten Gipuzkoako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen portzentajea % 1,5ekoa izan zen 2015ean.
- Emantzipazioa zapuzteko aukerak (hau da, zenbatek ezin izango duten emantzipatu, nahi izanda ere, eta zenbatek itzuli beharko duten, nahitaez, gurasoen etxera), gora egin du Gipuzkoan 2014 eta 2015 artean, % 41k,6tik % 43,5era.
- Gipuzkoan emantzipatu gabe dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean alokairuaren aukerak gora egiten du emantzipatu nahi izanez gero. 2013an % 47,9 ziren baina 2015ean % 61,2ra heltzen da.

GIPUZKOAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

Osasuna

- EAEko gazteek beren osasunaz duten pertzepzioak egonkor jarraitzen du, baina joera positiboa hartu du azken urteotan. 2002an, Euskadiko gazteen % 5,8k uste zuen ez zutela osasun ona (erdipurdikoa, txarra edo oso txarra), baina 2013an portzentaje hori % 4,6ra jaitsi da. Gipuzkoan beraien osasuna txartzat hartzen duten gazteen kopurua % 5,6koa da.
- Osasun-arazo kronikoen portzentajeak Gipuzkoako gazteen % 20,7 harrapatzen du.
- Osasun mentalari dagokionez, Gipuzkoako gazteen % 15,7k diote noizbait izan dutela antsietate edo depresioa, Euskadiko batez bestekotik zertxobait gora (% 13,7).
- Gipuzkoako gazte gehienek (% 76,1) egiten dute astero jarduera fisikoren bat, bizia edo neurrizkoa. Balio honek gora egin du 2007ko % 66,2tik.
- Obesitate-tasa kalkulatzeko, formula hau erabiltzen da: pisua (kg-tan) / altuera (m-tan) ber bi. Gipuzkoako gazteei dagokienez, tasa hau handitu egin da 2002ko % 2,6 eta 2013ko % 3,4 artean. Hiru lurraldeen baliorik baxuena dauka Gipuzkoak, izan ere Euskadiren batez bestekoa % 5,4 da.
- GIB infekzio berriek (adin-talde bereko 10 000 gazteko tasaren arabera kalkulaturakoak) balio txikiak izaten jarraitzen dute. 2015ean, tasa hori Gipuzkoako gazteen artean 1,2koa da.
- Haurdunaldia borondatez eten duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopurua (adin-tarte bereko 1000 emakumetik) 10,7koa izan da 2014an Gipuzkoan. Euskadin, ostera, 11,8koa.
- Haurduntza adoleszenteen tasak 15 eta 17 urte bitarteko emakumeen artean urtebetean jaiotako haur kopurua eta borondatez eten den haurdunaldi kopurua biltzen ditu, adin-tarte bereko 1000 emakumeko. 2013an tasa hori 9,3koa zen Euskadin. Gipuzkoan, baxuagoa, 6,1koa.
- Gipuzkoako 15 eta 29 urte bitartekoen artean trafiko-istripuen ondoriozko hilkortasun-tasa, adin-tarte bereko 100 000 pertsonako, 2,2koa da. Tasa hau Gipuzkoan jaso den baxuena da 2011ekoa kenduta.

Aisia, kultura eta kirola

- 2012an Gipuzkoako gazteen % 43,6 kontzerturen batean egonak ziren aurreko hiru hilabeteetan.
- % 49,7k aisialdiko jarduera artistikoren bat egin ohi zuten (esaterako, argazkilaritza edo pintura).

GIPUZKOAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

- % 56,3k erregulartasunez irakurtzen zuten (libururen bat hilean), nahitaez irakurri beharrekoaz gain. Hiru aspektu hauetan Gipuzkoa goreneko lekuan agertzen da Euskadin.

2. Adierazleen koadroa

- 2012an, Gipuzkoako gazteen % 47,3k kirola egiten zuten gutxienez astean hiritan eta honetan ere beste bi lurraldeen aurretik ageri da Gipuzkoa, Araban % 41,4 eta Bizkaian % 35,5 baitzen.

- Gipuzkoako gazteen % 27,1ek astean 15 ordu baino gehiago ematen zituzten Interneten.

- Gipuzkoan lonja daukaten gazteen portzentajea 2015ean % 26,5koa da.

3. Euskadiko panoramika

- Gipuzkoako gazteek lagunekin erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, % 59,3k euskara erabiltzen dute. Euskadiko batez bestekotik gora dabil hemen ere Gipuzkoa (% 42,0). Arabakoa bikoiztu egiten du (% 26,1); baita Bizkaikoa ere (% 30,7).

4. Arabako panoramika

Balioak eta jarrerak

- Gipuzkoako gazteen % 64k dute beren burua fedegabetzat edo agnostikotzat. Beste lurraldeetako gazteekiko aldea ia 20 puntukoa da (Arabakoa % 45,6 eta Bizkaian % 49,5).

- Gipuzkoako gazte gehienei ondo iruditzen zaie sexu bereko pertsonak ezkontzea (% 88,0), sexu-aldaketa egitea (% 83,3), askatasunez eta borondatez abortatzea (% 82,3, eutanasia egitea (% 75,6) eta kanabisa legezkotzea (% 67,1). Kontu guzti hauetan Gipuzkoa beste bi lurralde historikoen aurretik dabil.

- Gipuzkoako 15 eta 29 urte bitarteko % 41,7 elkarteren bateko kide da. Portzentaje hau Bizkaikoa baino askoz handiagoa da (% 25,9).

- Gipuzkoako gazteek politikan duten interesak gora egin du 2012 eta 2014 artean. Politikan interes handia edo dezente dutenen portzentajea % 28,2tik % 31ra pasa da tarte horretan.

- Gipuzkoako gazteen % 65,7k aldaketa soziala nahi duela adierazten du.

- Gipuzkoako gazteen % 8,7k borondatezko lana egiten dute.

- Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazleak (hau da, 15 eta 29 urte bitarteko zenbat emakumek salatu duten beren aurkako indarkeria, adin-tarte bereko 1000 emakumeko) balio konstanteei eutsi die azken urteotan. 2015ean Gipuzkoan, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen aurkako indarkeria 7,2koa da.

- Gipuzkoako gazteen % 32,9 garraio publikoan egiten dituzte joan-etorriak egunero.

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

GIPUZKOAKO GAZTEEN PANORAMIKA

1. Aurkezpena

2. Adierazleen koadroa

3. Euskadiko panoramika

4. Arabako panoramika

5. Bizkaiko panoramika

6. Gipuzkoako panoramika

7. Datu base interaktiboa

- Bizikletan egindako eguneroko joan-etorrietan, aldiz, Gipuzkoak (% 18,1) aurre hartzen die Arabari (% 17,2) eta batez ere Bizkaiari (% 2,1).
- Gogobetetasun pertsonalaren indizea (hau da, nola baloratzen duten gazteek beren egoera) 7,2koa izan da 2015ean Gipuzkoan.
- Adin hori zutenean gurasoak baino egoera hobean daudela dioten gazteen portzentajea neurtzen duen adierazleak beherako joera du 2008tik Gipuzkoan beste bi lurraldeetan gertatu den bezala, % 78,8 zenean. 2011n % 65,7ra pasatu zen, 2013an % 58,5era eta 2015ean % 66,1era igo da.
- Etorkizunarekiko konfiantza-indizea adierazle sintetiko bat da, eta adierazten du 15 eta 29 urte bitarteko gazteek nola ikusten dituzten bost urte barru beren egoera pertsonala, gazteen egoera eta Euskadiren egoera. Adierazle horren emaitza 0 eta 100 bitartean dago. Gipuzkoan 2014ko % 76tik 2015eko % 73,1ra jaitsi da.



DATU BASE INTERAKTIBOA

1. Aurkezpena

Gazteen adierazleak 2015 argitalpenak on line dagoen datu base handia kontsultatzeko aukera eskaintzen du. Base horretan Euskadiko gazteen ikuspegi hau osatzen duten 111 adierazleen informazioa dago eskuragarri. On line aplikazio honek taulak grafikoak eta mapa interaktiboak sortzeko aukera ematen du, baita berauek sortzeko hainbat aldagai aukeratzeko modua eta eremu geografikoen (EAE, Espainia eta Euroa) arteko alderaketa ere egin. Bertan sortutako informazioa beste programa batzuetan ere erabil daiteke.

2. Adierazleen koadroa

Gazteen adierazleak 2015 zazpi ataletan banatzen da. Atal bakoitzak bere aginte-mahai propioa du eta dagokien estekaren bidez jotzen da bertara.

3. Euskadiko panoramika

- **Demografia eta biztanleria**
http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatoki_tableu_biztanleria_15/eu_def/index.shtml

4. Arabako panoramika

- **Hezkuntza**
http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatoki_tableu_hezkuntza_15/eu_def/index.shtml

5. Bizkaiko panoramika

- **Enplegua eta egoera ekonomikoa**
http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatoki_tableu_enplegua_15/eu_def/index.shtml
- **Emantzipazioa eta etxebizitza**
http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatoki_tableu_emantzipazi_15/eu_def/index.shtml

6. Gipuzkoako panoramika

- **Osasuna**
http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatokia_tableu_osasuna_15/eu_def/index.shtml
- **Aisia, kultura eta kirola**
http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatoki_tableu_aisia_15/eu_def/index.shtml

7. Datu base interaktiboa

- **Balioak eta jarrerak**
http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatokia_tableu_balioak_15/eu_def/index.shtml



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud